



FRANKISMOA HOBITIK ATERATZEN

Berreskura dezagun Cuelgamuros harana demokraziarentzat

PODEMOS.

Indizea

Zer egin Cuelgamurosekin?	5
Ez dezagun hitz egin berradiskidetzeaz, baizik eta justiziaz	7
Zer egingo dugu Francorekin eta Primo de Riverarekin?	8
<i>Eroririk gabeko</i> haran bat	9
Memorial faxista izatetik oroimen demokratikorako lekua izatera	10

Zer egin Cuelgamurosekin?

1936ko uztailaren 18an, estatu-kolpe zibiko-militar batek gobernutik kendu zituen Bigarren Errepublikako agintari legiti-
moak. Kolpisten ideologia nazional-katolikoaren aurkako pert-
sona eta talde sozial, politiko eta kultural guztiak suntsitzea zen
Alemania naziak eta Italia faxistak babestutako altxamendu ha-
ren helburua.

Berrogei urte luzetan zehar ehun milaka pertsonaren oinarri-oi-
narrizko giza eskubideak sistematikoki urratu zituen diktadura
ekarri zuen altxamenduak: desagertuak hobi komunetan; arra-
zoi politiko eta erlijiosoengatik edo LGTBI izateagatik hildakoak,
errepresaliatuak, torturatuak eta espetxeratuak; milaka pertso-
na kontzentrazio-eremuetara deportatuak eta milaka erbeste-
ratu; beren amei lapurtutako ume jaio berriak; milaka neskatila
prebentorioetara eramanak, eta abar eta abar.

Gizakiaren aurkako krimenok ez dute preskribatzen eta gaur egu-
nera arte iraun dute gure herrian, biktima eta senideek beren oina-
rrizko eskubideei muzin egiten zaiela ikusten duten bitartean. Egia,
justizia eta ordaina jasotzeko eskubidea eta gertatutakoa ez erre-
pikatzeko bermeak dira biktima eta senideek merezi dutena. Jus-
tizia-gabezia oinarritutako inpunitatearen kultura horrek gizarte
osoak egia jakiteko duen eskubidea ere urratzen du, krimenon ge-
nero-dimentsioa ez aipatzearen, emakumeak bi aldiz izan baitziren
biktima: beren ideologiarengatik eta beren generoarengatik.

Diktadurak iraun zuen ia berrogei urtean, «Erorien Harana» de-
lakoa izan zen frankismoaren obrarik sinboliko eta politikoki
garrantzitsuena, ez diktadorearen hilobi megalomanoa bihurtu
zelako bakarrik, baizik eta faxismoaren memoriala ere ba-
delako. Haranaren proiektu monumentalari hasiera eman zion
1940ko apirilaren 1eko dekretuan bertan esaten zen haren xe-
dea zein zen: «gure gurutzada loriatsuan eroritakoen oroimena
betikotzea». Diktaduraren santutegi bat, demokrazian berrogei
urtez iraun duena. Kongresuak 52/2007 legea (abenduarien
26koa) aldatzeko 10/2018 dekretua-legea onartu zuen abuz-
tuaren 24an eta horri esker diktadorearen gorpuzkiak deshobi-
ratu ahal izango dira. Franco Erorien Haranetik ateratzearekin
batera, frankismoak gure demokrazian oraindik daukan inpuni-
tateari amaiera eman ahal izango zaio, halaber. Izan ere, Fran-
co haranetik ateratzera mugatzen bagara, hura gabe harana
sinbolikoki are indartsuagoa bihurtzeko arriskua dago eta, hori

dela eta, faxismoaren memorial honen ahalmen sinbolikoa guztiz ezabatzen duen interbentzio bat egin beharra dago, gure inguruko beste herrialde batzuetan tankera honetako monumentuekin egin dutenaren ildo berean.

Diktadore bati eskainitako mausoleo bat edukitzea bateraezina da demokraziarekin, areago kontuan izanik mausoleo hori diru publikoarekin mantentzen dela eta milaka biktima daudela bertan ehortzita haien senideen borondatearen kontra edo haien senideek jakin gabe. Gaur egun «ibilbide inperiala» izeneko ibilbide turistikoaren barruan dago errepresio-leku hori. Diktadura banalizatzeko kultura bultzatzen da bertan eta egia jakiteko eskubidea urratzen zaio bisitan doanari. Nazioarteko justiziak preskribaezintzat eta amnistiaturantz dauzka giza-terriaren aurkako krimenak. Salatu egin behar dugu oraindik hobi itxiak egotea; edo nortasuna lapurtu dieten pertsonak; edo torturatuak beren torturatzailleen ondoan; edo heriotza-zigorak sinatu zituzten ministro-ohiak egotea; edo zigortutakoen senideak ministro-ohi horien ondoan bizitzea... eta abar eta abar luze eta onartezin bat, eta horrek guztiak esan nahi duena.

«De un valle de lágrimas a un valle de memorias» izenburuko adituen txostenak nabarmentzen duenez:

Agerikoa denez, oroimen ugari biltzen ditu Erorien Haranak elkarren ondoan, eta guztiak ere diktadorearen itzalpean eta ezpata eta gurutzea uztartzen dituen nazional-katolizismorik zaharminduenaren babespean egon dira orain arte. Agerikoa da, halaber, errespetua merezi dutela han ehortzitako milaka hildakoek, baina errespetuak ez du esan nahi oroimenak elkarren ondoan jarri behar direnik «adiskidantzazko» memorial beraren barruan. [...] Gertatutakoa azaltzea, garai desberdinak zehaztea, identifikatzea, duintzea eta neurriak hartzea. Horiexek izan behar dira lehentasunak. Eta lehentasun horiei heltzeko, oroimen desberdinak edo oroimeneko elementu desberdinak identifikatu eta bereizita landu behar dira.

Hori dela eta, Podemosen iruditzen zaigu ezin garela Francisco Francoren gorpuzkiak deshobiratzerara mugatu: haranerako proposamen integral bat aurkeztu beharra dago, oroimen demokratikoari buruzko nazioarteko aginduei jarraiki, Nazio Batuen txostenek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik inpunitate-egoera onartezintzat jotzen duten egoera hau behingoz amaitzeko lehen urrats gisa.

Ez dezagun hitz egin berradiskidetzeaz, baizik eta justiziaz

Azken boladan barra-barra entzuten ditugu *adiskidetasun* eta *berradiskidetze* hitzak harana ez *ukitzea* justifikatu, dagoen moduan utzi eta zauri gehiagorik ez irekitzeko aitzaki gisa. Gure asmoa ez da zauriak irekitzea, inondik ere, den-denak behingoz ixteko lan egiteko asmo sendoa baitauekagu. Baina diktadorearen asmoei jarraiki «espainiarrak batzeko» eraikitako eta orduz geroztik haren irudia eta frankismoa gurtzeko erabilitako leku batek ezin du berradiskidetzeko lekua izan, alderantziz. Fabián Salvioli Nazio Batuen Erakundeko Egia, Justizia, Erreparazioa eta Ez Errepikatzeko Bermeak sustatzeko kontalari bereziak Diputatuen Kongresuan egoki azaldu zue-nez: «Harana birmoldatu beharra dago, Erorien Harana blindatzen jarraitzen duen mezu asimetrikoak diktadura-garaiko gizateriaren aurkako krimenen biktimak birbiktimizatzen segitzen baitu».

Giza eskubideen urraketak gertatzen direnean, Estatua urraketaren horien konplize izanik, eta demokrazian justizia trantsizionalik aplikatzen ez denean, Estatuan konfiantza izateari uzten dio gizarteak. Eskubideen bermatzaile gisa zegokion eginkizuna bete ez zuen estatu batenganako konfidantza berreskuratzeko bidea da birradiskidetzea. Ildo horretan, Podemosen iruditzen zaigu justiziarako eskubidea bermatzea dela berradiskidetzeko bide bakara.

Gaur egungo Erorien Haranak diktaturako hilketak, errepre- sioa eta ankerkeria ordezkatzeko ditu, eta modu anakronikoan demokrazia batean bizirik dirauen faxismoa gurtzen duen leku bat da. Europan parekorik ez duen salbuespen izugarri honi amaiera eman behar zaio eta, hori dela eta, oroimenerako es- parrua bihurtzea nahi dugu.

Zer egingo dugu Francorekin eta Primo de Riverarekin?

Francoren gorpuzkien lekualdaketak gardentasuna behar duela diogu Podemosen eta Estatuak ekintza demokratiko baten bidez egin behar dio aurre anomalia horri, hau da, argi erakutsiz sistema demokratiko bat dela diktadore bati eskainitako mausoleoa desagerrarazten duena. Era berean, iruditzen zaigu Estatuak aukerak eta bitartekoak prest eduki behar dituela diktadorearen gorpuzkiak beste norabait eramaten direnean, leku berria ez dadin frankismoaren gurtza-leku bihurtu, 1957tik Predappio hirian dauden Benito Mussoliniren gorpuzkiekin gertatzen den moduan. Horretarako, Francoren gorpuaren kokaleku berria kudeatzeko plan bat onartu behar du alor horretan esku-mena daukan Administrazioak, frankismoaren gurtza-leku berria bihurtzeko aukera guztiak errotik ezabatzeko.

Azken hilabeteotan eztabaida asko eta askoren erdian egon da Francoren deshobiratzea eta horrek ezkutuan utzi du José Antonio Primo de Rivera, nahiz eta, dakigunez, hura ez izan Gerra Zibileko biktima soil bat. Gauzak horrela, bat egiten dugu «De un valle de lágrimas a un valle de memorias» txostenean jasotako hitzekin:

Francok berak martirien hierarkia bat finkatu zuen, Primo de Riverari leku bat eman zionean aldare aurreko kupula handiaren azpian. Diktadoreak sektore falangistak pozik eduki nahi izateaz gain, falangismoa diktaduraren oroimen ofizialaren zati bezala erritualizatu, ospatu eta oroitzeko moduko lekua ere eman nahi zitzaiola erakusten du kokapen horrek. Nostalgiko batzuen artean demokraziaraino irau duen erritualismo hori ezabatu egin beharra dago. Hori dela eta, gorpuzkiak zein hilobi pribatutan lurperatu nahi dituzten senideen esku uztea proposatzen dugu.

Eta Francoren gorpuaz ari ginenean genion moduan, Primo de Riveraren gorpuzkiei ematen zaien kokaleku berria gurtza-leku faxista bihurtzea saihestu beharra dago. Gogoan izan behar dugu, bestalde, iaz Kongresuak onartu zuen legez besteko proposamenak eta Zapaterok 2011n haranaren etorkizunaz erabakitzeko sortu zuen Aditu Batzordearen txostenak (egungo prozesuaren oinarritzat erabili dena) jasotzen dutela Primo de Riveraren deshobiratzea. Horrengatik guztiagatik, iruditzen zaigu ez dagoela José Antonio Primo de Riveraren gorpua haranetik ez ateratzeko aitzakiarik.

Ereririk gabeko haran bat

Podemosen uste dugu diktadura frankistan giza-urraketa larriak jasan eta gero gaur egun Cuelgamuros haranan lurperatuta dauden biktimei (eta haien senideei) justiziarako eskubidea eta dagokien erreparazioa guztiz eta erabat errekonozitzea galarazten duen oztopo oro baztertzeko behar diren neurri guztiak hartu behar dituela Espainiako Gobernuak.

Haranean dauden gorpuzki guztiak ez dira berdinak eta, hori dela eta, identifikatu eta gutxienez hiru taldetan banatu behar dira, gure ustez:

- Francoren diktaduran errepresaliatuak izan eta gero haien senideek jakin edo baimendu gabe zeuden hobi komunitatik haranera eraman zituztenak (12.000 inguru direla kalkulatu da). Kasu honetan, Estatuak bere gain hartu behar du deshobiratze-prozesuen judizializazioa bai Poliziak bai Lege Medikuntzako Institutuak errepresaliatuen gorpuzkien deshobiratzea zaindu dezaten. Hilotzak banan-banan identifikatzeaz arduratuko direla esan nahi du horrek (hau da, hilotzez hilotz, zaintza-katea hautsi gabe), eta zeregin hori Estatuak hartu behar du bere gain.
- Gerra Zibilean eroritakoak: hauek identifikatu, deshobiratu eta haien senideei entregatu behar zaizkie. Senideak aurkitzen ez badira edo gorpuzkiez arduratu nahi ez badute, Cuelgamuros haranean memorial bat eraikitzea proposatzen dugu, baina hildakoen arteko inolako hierarkiarik gabe.
- Cuelgamuros harana eraikitzen hil ziren gatibu-langileak. Gorputzak identifikatu, deshobiratu eta haien senideei entregatu behar zaizkie. Senideak aurkitzen ez badira edo gorpuzkiez arduratu nahi ez badute, nola hil ziren eta Erorien Harana nola eraiki zen erakusten duen haraneko memorial batean lurperatzea proposatzen dugu.

Memorial faxista izatetik oroimen demokratikorako lekua izatera

Cuelgamuros haranaren esanahia aldatzen duen eta kudeaketa publikoaren mende uzten duen proiektu baten alde egiten dugu Podemosen, oroimen demokratiko eta antifaxistaren gune bihurtzeko helburuz.

Leku hau oroimen-zentro bihurtzeko xedeari jarraiki, iruditzen zaigu haranaren esanahia aldatu beharra dagoela. Horretarako, diseinu estetikoari eustea dago, baina haren indar simbolikoa guztiz hausten duten lan batzuk eginez. Lan horretan artista, urbanista eta arkitektoek parte hartu beharko lukete hura fisikoki hausteko, baina suntsitu gabe, noski. Horretarako, ezinbestekoa da barruko nahiz kanpoko ikur faxista guztiak kentzea, gurutzea eta ezpata barne. Gaur egun haranaren ikur bereizgarria den gurutze hori bota eta hondarkinak biktimak duintzen eta errespetatzen dituen beste monumentu bat erakitzeke erabil litezke.

Ezinbestekoa da espazioa desakralizatzea eta guztiz berreskuratzea, basilika barne. Horretarako, Espainako Estatuaren eta Vatikanoren arteko 1979ko hitzarmenak berrikusi egin beharko lirake, hitzarmen hari jarraiki erlijiosoaren esku gelditu baitzen basilikaren gaineko kontrola. Horrek ez du esanahi bertako sinbologia erlijiosoa zokoratu eta kendu behar denik, espazio haren gaineko kontrol guztia Ondare Nazionalari eman behar zaiola baizik.

Harana oroimen demokratikorako gune bihurtzeko proposamena gauzatzeko nazioarteko lehiaketa publiko bat deitzeko proposatzen dugu, oroimena lantzen duten elkarte eta mugimenduen eta biktimen parte-hartze eta iritziarekin betiere, Egia, Justizia, Erreparazioa eta Ez Errepikatzeko Bermeak sustatzeko kontalari bereziak orain dela gutxi Parlamentuan gogorarazi zigun moduan, nazioarteko erakundeek aipatzen duten biktimizazio bikoitza saihestearren.

Horretarako, ekintza-plan integral bat prestatu behar da, bi ardatz nagusirekin: lekua eta biktimak. Dagokion borondate politikoaz gain, proiektua diruz lagundu behar da —beharrezko aurrekontuaz arduratu behar du Administrazioak Ondare atalaren bidez— eta, horrekin batera, komunikazio-plan estrategiko bat prestatu behar da, turismoa eta hezkuntza uztartuz, leku sinboliko, ikoniko eta paregabe hau oroimen-parke bihurtzeko. Espazio honek Europako beste oroimen-leku batzuekin koordinatu, eta bertan zer gertatu zen eta diktadura zer izan zen azaldu behar du. Azkenik, leku hau nazismoaren eta faxismoaren europar markuaren barruan kokatu behar da, eta gaur egun European gorantz doan faxismoaren larritasunaz kontzientziatzeko tresna ere izan behar du.

exhumarelf franquismo.podemos.info

PODEMOS.